

Santa Teresa' ren iradiak Euskalerrian

Santa Teresak daukazan alderdi leun ederretatik bat auxe dozu: bere gain-gaiñeko emakume izatea, atsegingarri, esker oneko, edozeini on egiñez bizi izan zana, biotz-zabal eta esankor, naiz errege naiz eleiztar, zein beartsu zein aberats, joan-etorri luzeetan lagun izan jakozan mandazaiak albora itxi barik, edozeinen biotza irabazten ekiana. Emakume aundi ta zintzoa, xarmagarri ta jakintsua.

Leialki miretsi zitun euskaldunak, eta adiskide asko izan ebazan euren artean, bizkaitar, gipuzkoar edo arabar izan. «Bizkaitar» eritxen guztiai. Onako aunditasuna ikusten eban eurokan; barrukoi ta ixil-zale ziran beretzat. Bein bere adiskide min, Aita Grazian'i, eztenkada gozo au bota eutson: «Jainkoak naiko al dau zuk diñotzudan guztiari erantzutea, *bizkaitar* biurtu zara-ta».

* * *

Baiña, ez, oneik ez dira, Santa Teresak euskaldunakaz euki ebazan artuemonak nik emen aizatu nai ditudan gauzak; oneik ikasiak izan dira, naiz-ta erdizka, Aldizkari onen beste zenbaki ta ale batzuetan. Puntu berezi baten ingurukoa izango da gure lana: Santa Teresa'ren iduriak Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban.

Santa Teresaren iduriak eta margo-zapiak artearen testigantza eder dituzu, baita leku orretako jentearen eleizkoitasunaren argi-dizdiz bizia be.

Santa Teresaren iduriak Bizkalan

Bilbo, uri langille ta erneak Santa Teresaren iduri bikain asko gordeten ditu.

1668'ko urtarrillaren 3'an Karmeldarrak Bilbo'n, Korreo kalean, konbento bat jaso eben, bere baratz barruan gaur «Plaza de los Mártires» deritxonaren zati bat arturik. Bertan euken eleizatxoko altaran Karren'go Ama ta San Josegaz batera, Santa Teresaren iduri eder bat gurtu oi eben.

Labairu, edestilari argiak, «Historia General del Señorío de Vizcaya» idatzi ebanak diñoskunez. Bilbo'n ba-egoan Teresa Deunari eskifitako eleizatxo bat, eta onen jaube 1719'an Frantzisko Fuiko zan, Bizkaikoa, baiña Madrid'en bizi zana, beronen anai Pedro, Cifuentes'en bizi zanagaz batera. Baita ba-zan beste iduri bat Bilbo'n berton Lekainne frantziskotarren eleizan, antxiña samar alderandu ta urtua.

San Juan parrokian aurkitzen da gaur be Santa Teresaren iduri eder bat, eskumaldeko egaleko altaran, lenengoan oin zuzen be. Iduri bikain egindako au, Gregorio Fernandez maixuak esku guriz landurikoen antz aundikoa dozu. Parroki bertoko barru-geletan dago beste iduri bat, Santa Teresarena, bertetsu ta atsegin betez landua. Nire ustez, eleiza onetan gurtzen dan Santa Teresaren iduria da, antxiña-antxiña baten Bilbo'n karmeldar ortozen eleizan egoana. Eleiza onetara aldatua izan zan, egiaz, Karmengo Amaren iduria be. geroago, Begofia'ko karmeldar komentua jaso zanean, ango karmeldarra emondakoa.

Begofia'n, karmeldar komentuan, ba-da Santa Teresaren iduri bat, gaur sakristian daukaguna. Sarri entzun izan dot, iduri au izan zala Karmelo'ko eleizan egon diranetatik eder landuena. Izan be, ederra da, ta itzal aundikoa, Gregorio Fernandez'en eskolakoen antz-antzekoa ezta arren. Barruko ka-

pilla ta liburutegian ba-dagoz oindiño Santa Teresaren beste iduri polit batzuk, arte aldetik balio errimerik ez ba'daukie be.

Komentu ontan aurkitzen dira, baita, Santa Teresaren margo-zapi bi. Bata antxiña samarrekoa, eta baliokoa, Diru-zaiñaren gelan egoten zana; eta bestea, Aita Mauro'k —Antonio María Ruiz Rizzo Selfak— margoztua.

* * *

Barakaldo'k parroki bat dauko, Santa Teresari eskiñia, eta berton altara aurreko bularrean Santa aundiaren orio-margo lauki eder zabal bat.

Bilbo ta Santander tarteko Karrantza uriko kale-zerrenda batek Santa Teresari eskiñitako ermita bat markatzen dau, gaur agertzen ez dana. Eta emendik ezkerrera joaz, Balmasedan, guk karmeldar komentua euki gendun lekuan, egongo dira dudarik bage, baiña eziña izan zan ezer eskuratzea.

Zeberio'k, itxura danez, maite eban Santa Teresa, eta bertako eleizetan egon dira antxiñatik iduri politak Avila'ko Santa aundiarenak, gaur batzuk galduak edo-ta, diñoenez, ostuak. Bertako parrokian, Santo Tomas eleizan, eskumako sakristian, sekulako santu-museo ederto be ederto apaindua daukie; eta ementxe daukazu, joan eta ikusi nai ba'dozu, Santa Teresaren iduri bikain-bikain bat, azkarri edo goibezko eran esku leun-fñez osotua. Andik urrean, Arrankudiaga'n be, aurkitzen zan lenago ermita bat Andoni Deunai eskeiñitakoa, eta berton egoan eleiztarrak jaiera aundia eutsoen Teresaren iduri ospetsua, gaur Markiña'ko karmeldar mojen komentuan daukaguna.

Bilbo'tik itxas-aldera jorik, Getxo'n daukagu karmeldar mojen etxea, leenago Ulibarri'n, gero Begoña'n bizi ziranak itxas-egal zoragarri ortan jasoa. Euren eleizan daukie karmeldar otoizlari erneok, otoizlarien ama dan Santa Teresaren iduria; baita beste bat, jantzita, gela baten be. Orrez gaiñera, Teresa Amaren margo-zapi bi ta erliki bat be antxe daukiez, danak estimagarri ta biotzak dardarazteko sekulakoak.

Txorierrirantza egaz egiñaz, Leioa'n, Ondiz'ko ermitan, oraintsu barriztaurikoan, ba-da Teresaren oroigarririk. Bi bai

beintzat: bata, len batez be, oso maitatua izan zan Teresaren iduri bat dozu, gaur zabar samar dagoana; bestea, ermitatik ur-urreko landa baten aurkitzen dana dozu, au da, arrizko «Kalbario» bat, guztiz fifi landua: Gurutze aundi jasoa da, Santiago ta Santa Teresaren irudiakaz, arrian ederto irarri ta zizelkaturikoakaz.

Mungia'tik zear goazen Meñaka'ra. Emen daukagu urte batzuk dirala karmeldar mojen komentua, 1957'an eregitakoa nunbait. Emen be maitatua da Santa Teresa, eta beronen oroi-garri mordoa daukie eleizan eta komentuan; ona oneik: 1'50 metroko iduri galant bat, Bernini'k osoturiko Santa Teresaren Biotz-zulatzeari barriztuten dauan margo-euna, erliki bat eta beste iduri batzuk balio aundirik ez daben arren.

Gernika'n gagoz. Eta Foru-urri entzute zabaleko au Teresaren gomutagarritz asea daukagula esan bear dogu. Teresa deuna «Santa» iragarrita gero batez be, bizkaitarrak, laster asi ziran arima jainkozale arengana laguntza billa joten, eta Gernika'ko Batzarrak, 1676'an, bizkaitar guztien gogo bizia batuturik, Alba de Tormes'ko ama nagusiari 500 dukat bialtzeko crabagia artu eban lanparargi batek Teresa deunaren gorpuzki aurrean argi egin egian, «bitarteko ona izan eiten Bizkaia'ren alderako».

Berton, Santa Maria eleizan, altara bere-berea euki eban Santa Teresak, beragaz batera kanonizatuak izan ziran santuak zituala. Altara au gero, Gernika'tik bederatzi kilometrorra aurkitzen dan Nabarniz'era aldatua izan zan oso-osorik; ango parroquian dago gaur. Tamaiñu andikoa da Teresaren iduria, goitik beeraiño kapa zuria daroala. Zangotza (Nabarra)-n dago onen antzeko beste iduri bat.

Ikusi eben testiguak diñoskuenez, Gernika'n bertan, 1937'ko apirillaren 26'ko bonba-lertze ikaragarri atan ondatutako Juan Bateatzailleari eskutako eleizan be, Santa Teresaren iduri bat egoan gerra aurretik. Ospakizun aundiz jaitzen zan bere egunerako alik ondoen gertatu nairik, bederatzi-urten eder bat egiten ei eutsoen urtero.

Beste egazkada bat orain itxasertzez Ondarru'tik Markina'ranta. Beti egona dozu aipu aunditan ondarrutarren Jain-

ko-zaletasun urduria, baita eurak mendi-gaintxoan eder ta sotil daukien Antigua'ko Amaren eleiza polita, inguruko jenteak sarri ikustatua ta biotz samurrez maite izana. Eta ementxe aurkitzen da aspaldidanik Santa Teresaren iduri muñuñu bat. Beste aldetik, mendi bizkartxoan au be, Mutriku'ra goiazala eskumatik, Santa Krutz ermitea daukazu, eta berton Santa Teresaren iduri bat. Markiña'rantz egiñik, Ondarru ta Markiña tartean, or Gardotza eleizatxo, ingurukoak biotz berroz ikusi bat emona; begira emen be altaren eskumaldetik Santa Teresaren iduri bat eta margo-oial bat, ez edozelakoak.

Eta Markiña'n gagoz, teresatar artez aberats danean. Karmeldarren komentu bi daukaguz berton, prailena eta monjena.

Aita karmeldarren eleizan altara berezia dauko Santa Teresak, eta berton gurtzen da bere iduri bikain-bikain bat, du-darik bage gaztelar taillerretatik ona ekarria. Altara onetan bertan daukaguz baita beste teresiar gai batzukaz osotarik ozka-iduri bizi-biziak. Eleiza onetan berton, San Jose'ren altara gafiñeko zeruan agiri dira, bi beintzat esku fiñez egindako pintura-iduriak. Eta prozesiño klaustruan Santa Teresaren beste iduri bat, idazle antzean. Ezta arritzekoa; komentu auxetan zan, ba, 1868'garren urtean Karmeldar Ordenea, aspaldi baten ixillik egona, Espaiña'n barriro astearen kuma izan zana, eta naitaez euki bear modu askotako iduri ta gomutagarriak, Avila'ko Teresa amarenak, jakiña.

Eta beeratxoago, Ondarru'tik Markiña'ra sarreran, eskuma-aldera or daukagu karmeldar monjen komentua. Ez da au be urria, exkasa Teresaren idurietan. Berari eskiñitako altaran agiri da iduri oso eder bat, Frantzisko Font'ek egiña. Etxe barruan daukiez oindiño lau iduri, kuadru bi eta erliki bi, Teresarenak oneik be.

Erriko eleiz nagusi ederrean, Xemein-Markiñakoan barriz, ezkerreko altara baten margo-oial bat agertzen da, Santa Teresa idazle lez damoskuna. «Pintura lan apala» dala diñosku Mugartegi jaunak. Berton, eskumatara, Arimen altaran, onen gafiñ-mintzean agiri dira Karmen'go Ama, Santa Teresa, Loiola'ko Iñaki Deuna eta San Frantzisko.

Zaldibar'ko karmeldar mojak, gaur muiño-gaiñ eguzkitsuan bizi diranak, Santa Teresaren iru iduri daukiez: bat tamaiñu aundikoa, beste bat ez aundi ez txiki, bai bien arteko, eta irugarrena txikia. Erliki bi be ba-daukiez.

Durango aldea, oster, Santa Teresa antxiña-antxiñatik guztiz maite izan dauana dozu. Onetik jaieta ta deboziñoa zabaldu ta indartu zan batez be, jatorriz Mañari'koa zan Martin Gastiategi jesuita anaiak, 1588'an Santa Teresaren erlikiak emen inguruan zabaldu ebazanetik. Eleiztar askok eta askok erliki onein bitartez Santa Teresak lagunduak zirala, uste eben. Eta ari eraspina artzen asi ziran.

Tabira'ko San Pedro eleiza ospetsuan Santa Teresaren iduri eder bat daukazu, oso antxiñakoa itxura baten. Durango'ko Udalak, uriko eleiza alkartuen Patroi zanez, Santa Teresaren iduri bat eragitea erabagi eban 1732'an, 6.000 xezko erreal kostatu zana. Gero, Santa Ana eleizatik Tabira'ko San Pedro eleiza ondoko Rosario'ko kapillara aldatua izan zan.

Karmeldar mojak oraintsukoak dira Durango'n. Olot'eko lantegietan egiñiko Santa Teresaren iduri bat daukie, gaurko-tasunez iantzitakoa nunbait. Gusto onez burutua, irakasleen txanoa daroa buruan. Beste iduri txikiago bat be ba'daukie komentu barruan, berberarena.

Eta Abadiño'n, naiz-ta iduri auziaz zer-ikusirik ez izan, Teresari buruzko edo beintzat oni estu-estu dagokion izpar bat jaube gara. Fundaziño jaun-zalezko bat daukagu berton, Santa Teresaren omenezko Mixiño bat, Aita Pedro Añibarro, karmeldar ortozak, leengo gizaldiaren erdirantzako goraberak zirala-ta komentutik jaurtiak ipiñita.

Larrea'n gagoz, Karmen'go Amaren satutegian, Teresari buruzko gaietan oso aberatsa. Diego Felipe Larrea eta Arkaute Patroiak, Larrea-Jauregikoen illoba oiñordeko zanak, 1724'ko azillaren 21'an, karmeldar Ordenako Aita Nagusi Sorkundeko Pablo'ren baimenaz, eta lekaretxe ontako Aita Nagusi, Jose Deunaren Martin'en laguntzaz, Santa Teresa omendutea erabagi aren deduz sarrerako ate-gaiñean iduri bat jarriaz. «1766'ko Kroniketan» irakurten denez, Santa Teresaren iduri barri bat aitatzen da, gorputz osokoa.

1882'an, onez gaiñera, «Santa Teresaren iduri bat egin zala bere aldararako» oar-azten da, eta, azkenez, gizaldi onen lenengoetakoa, Frantzisko Font'ek landutako iduri eder-ederra, artista eskuz osotua dauka bertoko eleizeak, sartu ta eskumako altara urreztatua artzen dauana. Nire ustez, Frantzisko Font'ek egindakoetatik eder-bikainena. Iduri guren, amatasunez jantzia ta ezti-leuna.

Aztetxeko —gaur Gogartetxe— kapillan be ba-zan leen irudi mordo atsegingarri gogarazlea, Karmen'go Ama, Santa Teresa, Jose Deuna ta Gurutzeko Juan doneak osotzen ebela. Gaur ez gara orren iduri-zale.

Ba-dagoz oindiño beste oroigarri batzuk be, Santa Teresarenak, Larra'ko komentuan: eleizako zeru-kaskoan pintura bat, beste iru inguruetan dabezala. eta Santa Teresa berberak idatzitako karta baten jaube ba-dira beintzat Larrea'ko karmeldarrak.

Zornotza'n bertan dago «Karmelo» ikastetxea be, beñiola ementxe, eleiza aurreko Larrea jauregian asi ta gero, 1933'an, erriko plaza ondora aldatua. Ba-daukaz onek Teresaren iduri batzuk barruko eleizetan; baiña ikur edo seillu bat batez be, oso adierazgarria, *Collegium Teresianum Larrense* deritxona. Emendik ikusten dogunez, Ikastetxe au Santa Teresari eskifia zan, eta da, oso-osorik.

Santa Teresak Bizkaian daukazan iduri-saillaren izentazeari agur egin aurretik, beste egazkada bat oindiño Orduña aldera, erriz Bizkaia ta eleizaz Araba danera. Karmeldar lekaimeen eleiz-santutegi onetan ba-dozu Santa Teresaren gomutagarririk: eleizatik kanpora, barruko larrañean iduri eder bat; klausura barnean beste iru iduri, margo-oilal bi eta erliki bat. Bertako parroki zoragarrian Santa Teresaren iduria daukazu, eskumako kapilla baten. Aita Josefindarrak be ba-ditue Santa Teresaren iduriak.

Au ezta arritzekoa. Avila'ko moja argiak Bizkaí'raiño etorteko gogoia erakutsi eban ezkeror; ez eban gogo ori bete al izan atxakiz eta osasun ebillelako, batez be bere bizitzal-diko azken urteetan. Baiña zeozer gelago bizi izan ba'litz, elduko zan Orduña'raiño be. Gogo erakuste orixe naikoa

izan dau, orraitio, Orduña'k gizaldiak zear Teresari maitasun beroa adierazteko. Maitasun orren frutu lez, bertoko Udalak, 1611'ko apirillaren 24'an, Orduña'ko Uriaren erabagiz, eskaria gartsua bialdu eutsen Aita Santuari Jesus'en Teresa «Zoriontsuen» lerroan ipiñi eian.

Santa Teresaren iduriak Gipuzkoan

Gipuzkoa'n egoki da gure iduri-batze au Zumaia'ko karmeldar Mojen komentutik astea, auxe da-ta karmeldar komenturik zaarrena Euskalerrian.

1590'gn. urtean seroretxe bat zan oindiño, eta 1614'an asi zan karmeldar lekaiheen komentu izaten. Komentu ontan daukie Santa Teresak berak idatzita karta bat eta ondorengo iduri ta margo-eunak be berton aurkitzen dira: 1) Santa Teresaren iduri ederra komentuko eleizan; 2) beste iduri eder bat mailladi nagusian; 3) Ibildeun edo prozesiñoetan erabilten dana; 4) lekaihe sar-sarriak euren profesa egin oi dabenetarikoa; 5) Santa Teresaren iduria nobiziaduan daukiena; 6) Lan-aretoaren buruan daukiena; 7) Margo-eun bat, Anai Juan de la Miseria' egindakoaren aldakiña edo bir-egiña; 8) Santa Teresaren eta Kristo Zutoiñari lotuaren margo-eun bikaiña; 9) Santa Teresa erakusten dauan eun bat, eguteran gurtzen dana; 10) Santa Teresa zentzun-galtze baten itxuratzen dauan margo-euna. Oneitaz gaiñera, ba-daukiez erliki batzuk be.

Donostia'tik ur-ur, Aiete gaiñean, Santa Teresari eskiñitako bas-elizatxo bat aurkitzen zan lenago. Ementxe egon ziran; antza danez, karmeldar Lekaiheak Okendo jeneralaren etxeetara, gaur dagoan lekura aldatu ziran arte. Eskualde ontan gaur Opus'koak etxe ta obra aundiak egin bait dabez, ez da ermita aren aztarrenik ez lorratzik geratzen, baiña an dago oraindik, Aiete'tik albo samarrean, «Santa Teresa» deritxon basetxea.

Donostia'ko karmeldar mojak Teresaren ainbat oroigailu baliotsu daukiez, gerra ta politikazko gorabera ta istilluetan gomutagarriotatik askotxo galduak izan arren. Ona gaur bertan agertzen diranen zerrenda au: 1) Santa Teresa'ri eski-

ñitako eleiza ederra; 2) Altara nagusian Santa Teresaren iduri bifaña, taillu ondo landua; 2) Torreko eskumaldeko utsune edo kaperan daukagun iduria; 4) Santa Teresaren iduria, beeko koruan; 5) Komentuko barru-larraiñean aurkitzen dana; 6) Klaustro barruan aurkitzen dana, arrian landuta; 7) Goiko koruan daukagun lauki edo kuadru aundia; 8) Santa Teresaren Kuadrua, komentu barrura daroan ate ondoan.

Donostia'n bertan ez dira gitxi Santa Teresaren familiakoak eta oneik be iduri asko dabez, euron Teresa'ganako mai-tasuna argi ta garbi adierazten dabenak.

Aita Karmeldarrak, Amara'n, ezkerreko aldeko altaran daukie Santa Teresaren iduri bat, polito egiña; baita komentu barruko gela, be-barru, kalistro ta beste etxetune batzuetan be, gurgarri jakez Teresaren iduriak, eta abar. Bertan daukie «LA OBRA MAXIMA» aldizkaria be, Teresaren iduri ekarri oi dabezana.

Teresiar Institutziñoak, Frantzia'ko Ibilbidean, 8'garre-nean, bere etxea daukanak, bere etsari edo ikus-aretoan Santa Teresaren kuadru polit bat erakusten dauku.

Baita bertan, Santa Teresaren Konpañikoak, oneik zerok daukiez: 1) Santa Teresaren iduria, kapillan aurkitzen dana; 2) Santa Teresaren bigarren iduria bat, eta tapiz eder-eder bat, Avila'ko Santa aundia itxuratzen dauana. Onez gaiñ, ikas-gela guztietan Santa Teresaren lauki edo kuadru bat agirian ipinteko oitura dabe.

Azkenez, Donostia'n bertan, etxeetako kapilla, gaixotetxe eta abar, Irugarrengo karmeldar mojak, Karidadeko Karmeldar Lekaideak, Teresiar Misiolariak eta olakoak erabilli ta zainduak ikertzen ba'doguz, konta-ezin-ala iduri, kuadru ta abar, Santa Teresarenak nunbait, iragarri, aitatu ta jakin-erazo daikeguz; baiña ez dot uste olako izentatzen zeatz baten premiña dauka-gunik, gaurko samarrak izanik, batez be, eta geienetan balio aundi bakoak.

* * *

Ostera dagigun orain Probintzi barruko errietara, eta ona

lenengo Azkoiti. Emengo karmeldar Mojak urrengo gomutagarriak gordeten dabez: 1) Santa Teresaren iduri bat, eleizako altara nagusian; 2) beste iru iduri komentu barruko gela ta lan-tokietan; 3) Santa Teresaren bost erliki.

Bertoko parroki edo eliz nagusian be Santa Teresaren iduri bat gurtzen da, arte aundiz landua, ezker-alderdiko kurutze-beso txikian.

Azpeitia'ko eleiza nagusian be bardin, naiz-ta gaur itsusi samar aurkitu, leen Santa Teresaren iduri bikain bat gurtzen zan. Eta ementxe berton, Sorkunde Garbiaren monastegi ospetsuko altara nagusiko taulean Santa Teresaren iduri bat daukazu, balio aundikoa, Iñazio ta Jose Enparen anaaien aginduz egiña.

* * *

Zarautz, itxas-egaleko uri pinpiriña. Emen daukazu karmeldar Mojen komentua. Santa Teresaren zer onein zaintzaille dira: 1) Iduri eder bat, alderdi bateko altaran jagiten dana; 2) Santa Teresaren iduria, kapituluatarako dan aretoan; 3) Santa Teresaren iduria sar-barrien aztegian; 4) Santa Teresaren iduria, baratzeko ermita baten gurtu oi dabena; 5) Leiar-ki edo bidriera bat eleizan, Santa Teresaren Biotz-zulatzea iduritzen dauana; 6) Erliki bat, Santa Teresaren gorpu garbiaren azur txiki bat daukana.

Eibar'en, Aita karmeldarrak, ezker-aldeko altaran gurtzen dabe Santa Teresa iduri baten.

Bergara'n, Oxirondo'ko Santa Marina eleiza ederrak Santa Teresaren iduri antzez landuriko bat dauko; aunditasunez jantzia eta soñeko ederrez apaindua, asko Txurrigera'ren egikerakoa eta Gregorio Hernandez, Valladolid'eko tailugille klasikuaren Santa Teresaren idurien eskolako naikoa bereizkuntza gorderik buruturikoa. Iduri au Madrid'en landua izan zan 1741'garren urtean, 1.300 errealetan. Berau egin ebana, Luis Salvatore Karmona, XVIII'garren mendeko gaztelar idurigille ospetsua dozu. Leandro Silvan jaunak, bere «Las villas de la unión del río Oria» liburuan diño: «...altara aurreko orma gaiñean, pizkunde garaiko argazki bat dago, San Juan,

Santa Teresa ta Errosario'ko Andra Mariaren iduriakaz». Gaur ez da an olakorik agiri.

Altzo Beeko'n Aita karmeldarrak leen Santa Teresaren margo-eun bat eukien euren elaiatzxoan, Alegeri'ko Fermin Arrizabalaga'k 1927'an margoztua.

Arrasate uri langilleak parroki bat dauko Santa Teresaren omenez jaso.

Emendik naikoa urre, Izarieta erritxuan, Apozaga ondoan, Santa Teresaren margo-eun bat gurtzen zan lenago, naiz-ta gaur-egun eleizatik baztertua izan.

Eta, amaitzeko, goazen Lazkau'ra. Emen dirau oindiño Karmeldar Lekaideen antxiñako komentua, 1641'an Santa Teresari eskiña. Orain Aita Beneditarrak zaintzen dabe, eta oraintsu barriztatu daben arren, karmeldar kutsu antxiñakoa bape kendu barik egindako barriztatzea dozu.

Kanpo-aldetik asiaz, aurreko gaintxoan daroa Santa Teresaren iduri bat, arrian landua eta aitzineko orma-utsune baten ezarria. Ate nagusiko orma-mintzean Teresaren leiarki edo bidriera dotore baten edertasuna nabari da.

Altara nagusiko erretaula edo oltza Santa Teresazko museu txiki bat dozu. Beronen iduri bikain zoragarria daukazu erdi-erdian, antxiñako taillua, ona ta garrantzitsua, Gaztela'ko landolen batetik etorria dudarik bage, Gregorio Hernandez maisuaren eskolakoren batek burutua. Markiña, Bilbo'ko Juanen, Arzeniega, Korella, Iruña eta abarren aurkitzen diran Teresa Deunaren idurien antz aundia dauko, eta ez da ifiolaz be Gregorio Hernandez'en jarraile on bati egoki ez jatorkona.

Baiña Santa Teresari buruzko arte-oparotasunik ugariena erretaula nagusiko aulkian daukazu. Margo-eun bitxietan Santa Teresaren lau bizitz-une oso inportanteak batzen ditu eta bardintsu jarlekuen mutur gainetan ainbat eta ainbat ozka txikitán, pintzel-puntaz oso fin egiñak, aren bizitako joan-etorri ta gorabera ez gitxi.

Azter daiguzan, naiz-ta labur, Bizente Berdusan, margolari ospetsu, Teresa-zalearen lau margozko eun edo lienzoak:

1) Santa Teresaren Biotz-zulatzeara (103 × 54). Ikusten da, eta argi ikusi, bere margo-gairik kutunena zala auxe, egin-lan bardifiakin aurkitzen bait gara, naizta tamaiñu aundiagoakaz, Funes'ko eleiz-parrokian, Fitero'ko abat-eleizan eta Tudela'ko Ama Kaputxiñoetan; 2) Andra Mariak eta San Josek Santa Teresari ipiñi eutsoen Lepoko ezartea (103 × 54), au be Iruña, Korella, Tudela ta bestetako komentueta aurkitzen dan pintura da; 3) Santa Teresa eta beronen neba Errodrigo, Kristo-gaitik buru-moztuak izan eitezan mairu-arterako bidean (103 × 54); 4) Santa Teresa Kristo-gandik untze bat artzen (103 × 54); gure antxiñako komentueta ba-dira onen antzekoak.

Pintzel-puntaz egiñiko ozkak, oneik antzezten dabez: 1) Santa Teresa eriotz-ogean: «Deun il bearra dot»; 2) Jauna agertzen jako Teresari: «Aurrerantzean zuk angeruakaz bakarrik jardutea nai dot»; 3) Santa Teresa deiez: «Erdue orain danok»; 4) Santa Teresa otoitz-jarreran: «Edo jasan edo il»; 5) Kristok diñotsa: «Biotz au zuk irabazi daizun, nai izan dot»; 6) Santa Teresa neskatz batekin: «Zabiltz nai dozunez, azkenean be karmeldar ortoza izango zara-ta»; 7) Jesukristok biotzean daroa Teresa: «Begira, nun zaroazadan»; 8) Kristok dirautso: «Egin ez ba'neu be, zeuretzat bakarrik egingo neban zerua»; 9) Santa Teresa domingoar lekaide bategaz: «Ar eizu atsedan neugaz»; 10) Santa Teresa eta Gure Jauna, onek diñotsola: «Ba-dakit, alaba, asko daroazuna».

Santa Teresaren iduriak Araban

Gasteiz'ek pozez beterik eta arrandiz dauko Santa Teresaren iduri bikain bat, Gregorio Hernandez, Valladolid'eko taillugile entzute zabalekoarena noski, San Antonio eleizan, Moja Klarisen komentuan aurkitzen dana; XVII'garren gizaldiaren lenengoetakoa dozu. Orrezaz gaiñera, Gasteiz-ek gorde-ten ditu beste lan asko be, baliotsuak, Gregorio Hernandez'ek egiñak, San Antonio eleizan, San Migel parrokian, eta abar.

Brigidar Lekaimiak Santa Teresaren iduri eder daukie, gaur kultutik baztertua. Errazoiz esan geinke iduri au 1589'ko iraillaren 27'an Gasteiz'en komentu barria jaso eben antxiñako Moja karmeldarreña zala. Uri onetan sartu ta laster, altara

nagusian egoan Maria Madalena deunaren iduria andik baztertu ta Santa Teresarena ipiñi gura izan eben, baiña Udaletxea asmo orren aurka jagi zan. Bat etorri etziranean, karmeldar Mojak Gasteiz itzi eta Logroño'ra aldatu ziran, eta andik geroago, Katedral barriaren inguruan kokatuta egoan komentu au, Brigidar Mojak artu eben; eta gaur, apur bat beerago, Goikoetxea kalean bizi dira. Iduri onek, azalpen au barik, ez dauko zergaitik egon Brigidar Mojen komentuan eta kultutik baztertua.

Gasteiz'ko Aita Karmeldarren eleiza egundaiñokoan, esku-maldeko altaran, Santa Teresaren iduri apain, artetsu ta itzal aundikoa gurtzen da, Frantzisko Font, kataluiñar taillugillearen lana, XX'garren gizaldiaren asierakoa. Komentu ontan dago, era berean, kuadru aundi bat, Santa Teresaren Biotz-zulatzeara iduritzen dauana. Suarez Alba'ren lana dozu. Onen kopia zeatz bet be, 0'60 x 0'30'ñokoa, berton aurkitzen da; bardin beste kuadru bat be, Santa Teresa idazle legez, ederto egiña, Aita Mauro karmeldarrak osotua. Ortze daukazu azkenez Santa Teresa Andra Maria Karmeldar Lagundiko Zaindariaren lauki edo kuadru atsegingarrian, koro-aurrean aurkitzen danean ain zuzen.

Komentutik kanpo, Errotondo'ko kapillan, Prado'n, dago Santa Teresaren iduri polit bat, naiz-ta gaur naikoa murriztua.

Gasteiz barruan gaur, Betoño'ko karmeldar Mojen komentua, naiko aberatsa da Teresa Deunaren oroigarrietan. Ona batzuk: 1) Eleizako altara nagusian iduri bat oraingo aizez egiña, baiña arte-barrutian gora aundi bakoa; 2) Iztokian zaintzen dabe Teresa Deunaren mukulu-duri bat, brontzezkoa; 3) Komentuko baratzean jasoten da beste iduri bat, ez aundi ez txikia, irakasle (dotor) txanoa daroana; 4) Mojen barruko iztokian irudi txikitxo bat; 5) Santa Teresaren beste iduri bat komentuko kalistru batean, metro bateko andi-txikarra dauana; 6) Santa Teresaren margo-eun bi.

Gasteiz'ko karmeldar Mojak, aldi laburrean bi edo irutan tokiz aldatu bear izan dabenak eta gaur Bustizuri'n, Apaiz-gaitegi ondoan aurkitzen diranak, Santa Teresaren iduri bat daukie gurtzeko agiriko kapillan eta Teresa Amaren margo-eun bat, Anai Juan de la Miseria'k egin eutsonaren aldakia.

Agurain'en, Ama karmeldar Ortozak oraintsu itxi eben komentuak Santa Teresaren iduri bi eukazan eta berberaren margo-eun bat.

Legutiano'ko parroko erretaula nagusian, 1936-1939 bitarteko anai-arteko guda ostean Sojo'tik ona aldatuan, Santa Teresaren iduri dotore bat daukagu gurgarri.

Aramaio'n, Ibarra'ko San Martin eleizako kontu-liburuan Santa Teresaren altara bat aitatzen da.

Murgia'n, karmeldar Mojen komentuan urrengo iduri ta margo-eunak gordeten dira: 1) Jesus'en Teresa Deunaren irudi bat, zizel-lan ona, bertako komentu-eleizan dagoana; 2) Teresa Deunaren iduri bat, komentuko kalistro baten gurtua; 3) Beste bat, koru-aurrean aurkitzen da; 4) Santa Teresaren iduri bat, subil edo aurkitzar baten jarrita, idazten ba'lebil; 5) Teresa Ama idazle lez agertzen dan margo-euna; 6) Beste margo-eun bat, aurrekoaren egikerakoa; naikoa antxiñakoa dala dirudi.

Murgia'n entzute ta ospe aundikoa dozu Oro'ko Andra Maria'ren eleizatxoa, erritik ez urrin be, leku alai ta ikusgarrian, oraintsu guztiz ederto barriztatua; ermita jagi ta berezi onetan, antxiñakoa emoten dauan Santa Teresaren iduri bat daukagu, oso ederra ain zuzen; nire eritxiz, beste tokiren batetik ara eroana dogu.

Arziniega'n, Enzina'ko Andra Mariaren eleiza garaiak be Santa Teresaren iduri bat dauko, baliotsua nunbait. Karmen'go Andra Mariari eskiñitako eskumako altaran daukazu. Aita Grazian'en garaian karmeldar lekaimetxe bat jaso nai izan zan, berberak bere «Anastasio'ren Erromesaldia» deritxon liburuan itz-egiten dauanez.

Errespalditza'n be ba-da, itxura danez, Santa Teresaren iduriren bat.

Eta Araba'ko sortaldera joaz, Moreda'ko parroki-eleizan Teresa Deunaren irudi bat ospatzen da, jas aundikoa ta ederto landua, Gregorio Hernandez'ek Teresaren iduriak burutzen zituan lez edo egiña, ots, klasiku erara. Lenago baten etzan, uste danez, parroki atakoa, komentuaren batetik ara eroan-

dakoa baiño; eta karmeldar komenturen batetik ara eroana
ain zuzen be, aurreko zutoinean aurkitzen bait da beste iduri
bat, Jose Deunarena, antz-antzekoa, eta santu biok alkartzeko
oitura guztiz karmeldarra da.

Eta orrialde oneik izten doguz Bernedo'n Santa Teresari
eskiñitako ermita kondairaz beteaz. Arte aundikoa ez ba'da be,
naiko jente artzen dauana, parrokoa barrizteko egin diran la-
nak amaitu arte, berau izan da-ta aren ordeazkoa. Eleiza au eta
beronen kapillautzea 1562'gn. urteko uztaillaren 25'an Ber-
nedo'n jaio zan Diego Martinez Kabredo eta Romero apaizak
sortuak izan ziran.

1621'ko maiatzaren 20 egindako ilburukoan, urte ta illabete
bereko 21'an jarritako ordenu-ondokoaz, Bernedo'n, Santa Te-
resaren omenez eleiza bat jasoteko bear zan aiña ta geiago
diru itxi eban, beronen Kapillautzarako eta beste errukizko ta
kulturazko egintza batzuetarako diru-kopuru onaz ornidurik.

Eleizatxo edo otoiztegi ontan buru Jesus'en Teresa Deu-
naren iduriak egiten dau.